

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Behin betiko onestea udalaren 2020ko aurrekontu orokorra

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, eta ikusirik ez dela inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu erakunde honetako 2020 ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka, zeina udal honek hartu zuen 2020ko urtarrilaren 8an egindako ohiko osoko bilkuran, eta 2020ko urtarrilaren 17ko 6 zenbakidun ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean ikusgai egon den, aipatutako aurrekontua behin betiko onartzen da.

Akordio horrek, berarekin dakar 2020ko ekitaldi ekonomikorako Urkabustaizko udal aurrekontuaren behin betiko onarpena. Ondorengo da aurrekontu horren laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
1. Langile gastuak	358.928,22
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	584.509,06
3. Finantza gastuak	1.000,00
4. Transferentziak arruntak	319.617,87
6. Inbertsio errealak	57.272,00
7. Kapital transferentziak	37.000,00
Gastuen egoera, guztira	1.358.327,15

Diru sarrerren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
1. Zuzeneko zergak	508.457,00
2. Zeharkako zergak	10.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	130.795,97
4. Transferentzia arruntak	665.783,94
5. Ondare bidezko diru sarrerak	42.290,24
6. Hirigintza jardunen ondorioz izan diren inbertsio errealak eta bestelako sarrerak besterentzea	1.000,00
Diru sarrerak, guztira	1.358.327,15

Erabaki honen bidez Urkabustaizko Musika Eskolaren 2020 ekitaldi ekonomikorako aurrekontuari erebehin betiko onespena ematen zaio. Aurrekontu hori ehun eta hogeita hemeretzi mila ehun eta hirurogeitazortzi eurokoa (139.168,00 euro) da, bai gastuei, bai diru-sarreei dagokienez. Hona hemen aurrekontua kapituluka laburturik:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
1. Langile gastuak	125.268,00
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	13.450,00
4. Transferentzia arruntak	450,00
Gastuen egoera, guztira	139.168,00

Diru sarrerren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	49.354,00
4. Transferentzia arruntak	89.814,00
Diru sarrerak, guztira	139.168,00

Aldi berean, iragarki honen 1 zenbakidun eranskin modura, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erakunde honetako lanpostuen zerrenda argitaratzen da.

1 eranskina

Urkabustaizko Udaleko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda

Udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 8an egindako ohiko osoko bilkuran, udalbatzaren lanpostuen zerrenda ere onartu zuen, 2020ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontu orokorraren osagai gisa.

1. Funtzionarioak

A) Gaikuntza nazionalekoak.

1.1. Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea. Mota: hirugarrena. Plaza kopurua: 1. Eskala: gaikuntza nazionala. Administrazio egoera: aktiboan. Lanbide kategoria: teknikaria. Taldea: A. Titulazioa: Lizentziatua Zuzenbidean, Zientzia Politikoetan eta Administrazio-zientzietan, Soziologian, Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan, Ekonomian edo Aktuario- edo Finantza-zientzietan. Lantokia: Udaletxea. Lanaldia: Osoa. Hornikuntza-modua: lehiaketa-oposizioa. Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun-datarik gabe.

B) Karrerakoak, toki administrazioak.

1.2. Lanpostuaren izena: aguazila - zerbitzu askotarako langilea. Plaza kopurua: 1. Eskala: administrazio berezia. Administrazio egoera: aktiboan. Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak. Taldea: E. Titulazioa: eskola ziurtagiria. Lantokia: udaletxea. Lanaldia: osoa. Hornikuntza-sistema: lehiaketa-oposizioa. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

C) Korporaziokoak.

1.3. Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 2. Lanbide kategoria: laguntzaileak. Taldea: D. Titulazioa: eskola gradua, Lanbide Heziketako 1. maila edo baliokidea. Lantokia: udaletxea. Lanaldia: osoa. Hornikuntza-sistema: lehiaketa-oposizioa.

– 1. lanpostua:

Administrazio egoera: hutsik. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

– 2. lanpostua:

Administrazio egoera: hutsik (bitarteko batekin). Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarekin: 1996ko uztailaren 20a.

2. Lan kontratupeko langileak

2.1. Lanpostuaren izena: liburutegiko arduraduna. Plaza kopurua: 1. Administrazio egoera: hutsik (bitarteko batekin). Lanbide kategoria: laguntzaileak. Taldea: D. Titulazioa: eskola gradua, Lanbide Heziketako 1. maila edo baliokidea. Lantokia: udal liburutegia. Lanaldia: partziala (lanaldiaren ehuneko 57). Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarekin: 1993ko otsailaren 27a.

Udalbatzako kideen ordainsariak eta diru esleipenak.

- Alkate-lehendakaria: lanaldi partziala (lanaldiaren 1/2): 23.858,24 euro gordin urtean.
- Zinegotziak: kalte-ordainak, ohiko osoko bilkuretara benetan joatearren: 70,00 euro.

Erabaki honen aurka, zeinak udal honen 2020ko aurrekontu orokorraren espedientea behin betiko onesten baitu, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian (txandaren arabera dagokionean), bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, eta nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu zuen organoari aipatutako erabakiaren aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2020ko otsailaren 7a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA